

Campbell, 1998 :

ALDAKETA FONOLOGIKOAK: HOTS ALDAKETAK

Hots aldaketak erregularrak dira. Hotsa aldatzeko kontestuan egoten bada, aldaketa emateko kontestuan dago. Printzipio hau neogramatikariek asmatu zuten 1876.urtean, Alemanian.

Hots aldaketa motak:

1. Aldaketa mugatuak: kontestu zehatz batzuetan soilik ematen diren aldaketak
2. Aldaketa mugagabeak: Gertatzen diren kontestu fonetikoaren menpe egon gabe, orokorrean ematen diren aldaketak dira.
3. Aldaketa fonetikoak. Fonema inbentarioan dute eragina
 - 3.1 Fusioa: 2 hots fusionatu egiten dira. (A,B > B / A,B > C)
 - 3.2 Banaketa: beste hotsen fusioak banaketa dakar. (A > B, C)
4. Fonetikoak ez diren aldaketak: Ez dute fonema kopuruan eraginik.

Aldaketa fonologiko orokorrak:

1. Asimilazioa: hots batek bere ondoko hotsaren antzekotasunak hartzen dituenean gertatzen da.
2. Disimilazioa: hots bat ondoko hotsetik diferentziatzen denean.

Ohiko hots aldaketa motak:

1. Ezabaketak:
 - Sinkopea: bokal baten galera hitz barruan
 - Apokopea: hots baten galera hitz bukaeran
 - Aferesia: hasierako hotsaren ezabatzea
2. Epentesia: hots baten gehitzea hitz barruan
 - Protesia: hasierako hotsaren gehitzea.
 - Anafilaktikoa: 2 kontsonante artean gehitzen den bokala.
 - Eskrezentzia: kontsonante artean gehitzen den beste kontsonantea
 - Paragoge: hots gehitua hitz bukaeran.
3. Rotazioa: s>r
4. Metatesia: soinu aldaketa
5. Haplologia. Host errepikapenen sinplifikatzea. Adb: tatas> tasa
6. Apurtzea: bokal laburraren diptongizazioa kontestu jakin batzuetan.

MAILEGAKETA

Hizkuntza batek beste hizkuntza batetik hitzak, hotsak, arau fonologikoak, fonema gramatikalak edo sintaxi ezaugarriak hartzeari deitzen zaion prezesua.

- Mailegua: beste hizkuntza batetik hartutako hitza
- Mailegaketaren zergatiak:
 - Askotan hizkuntza batek beste hizkuntza bateko terminoa beregeanaten du, kontzeptua bera izendatzeko terminorik ez duelako. Askotan terminoa + kontzeptua mailegatzen dira.
 - Prestijioa.
 - Mespretxuzko mailegaketa.

- Nola mailegutzen dira?: Batzutan mailegatutako hitzak modifikatu egin behar dira mailegua hartu duen hizkuntzaren estructures morfologikoa eta fonologikoetan sar dadin. Adaptazioa deitu izan zaio. Akomodazioa, ezabatzea, gehitzea edo hots batzuen konbinaketatik sortzen da, hizkuntzaren estructures sar dadin. Honi zenbaitetan **difusio fonologiko zuzena** deitu izan zaio. Kanpoko hotsa era ezberdinetan mailega daiteke; hitz ezberdinak denbora periodo desberdinean hartzen direlako gertatzen da hori. Mailegaketa pronuntziazioan (ahozkoan) oinarritzen da, baina orotografian ere oinarritua egon daiteke.
- Nola identifika ditzakegu maileguak + erabaki zein izan den mailegatzeko bidea?
 - Kriterio fonologikoa: Tipikoak ez diren soinuak dituzten hitzak kandidatuak dira. Gainera, hizkuntza familiako historia fonologikoa jakinez gero, hots aldaketaren informazioa baliagarri izango da maileguak determinatzeko.
 - Konplexutasun morfologikoa: Galdera forma hizkuntza batean konplexua bada, hizkuntza emalea izango da konplexutasun morfologikoduna eta hartzailea monomorfedikoduna.
 - Arrasto geografikoak: Maileguak izan daitezkeen hitzen arrastoek gakoak eman diezazkigukete hitza mailegua den ala ez erabakitzeko.
- Maileguak, antzinako aldaketa linguistikoen arrastoak
Maileguk hizkuntza baten etapa zaharragoak identifikatzen lagun dezake, aldaketa berriak eman baino lehen.
- Zer mailega daiteke?
 - Hotsak: 2 prozesuren bidez: onomatopeia eta sinbolismo espresiboa
 - Hizkuntzen arteko kontaktu/elkareaginak, hotsen ezabatzea ekar dezake.
 - Aldaketak: jatorrizko hizkuntzaren fonetikara hurbiltzeko asmoz.
 - Kanpoko fonologia arauak ere mailega daitezke.
 - Kalkoak

ALDAKETA MORFOLOGIKO/ ANALOGIKOAK

3 aldaketa garrantzitsuenak: analogikoak, fonologikoa eta mailegaketa. Analogia barne egiturako aldaketak dira, ez dira hitz solteetan ematen diren aldaketak; aldaketa kateak dira..

- Analogia mailakatzeak: formen alofonoak murrizten ditu.
- Analogia eta aldaketa fonologikoen loturak: Aldaketa fonologikoak erregularrak dira baina irregultasuna ekartzen dute helburu. Analogia aldiz, irregularra da eta erregularitasuna ekartzen du.
- Analogia motak:
 - 1) Hiperzuzenketa: zuzen dauden gauzak zuzentzea
 - 2) Herri etimologia: Jendeak egiten dituen loturak, berez egokiak ez direnak. Adb: Hamburg + -er = hamburger, fishburger...
 - 3) Atzeranzko eratorpena: eratorpenaren kontrakoa. Handitik txikirako hitz sorketa.
 - 4) Berranalisia: Aldaketa estructuresalaren aladaketara darama.
 - 5) Kutsadura: 2 hitz zati kobinatuak dira berria sortzeko.

METODO KONPARATUA ETA BERRERAIKETA LINGUISTIKOA

*(Proto-hizkuntza: aitzinean egiten zen hizkuntza, hizkuntza arrebak eratorri diren hizkuntza./ Hizkuntz-arreba: familia beraren parte diren hizkuntzak./ Metodo konparatua: lotutako hizkuntzen egiturak konparatzen dituen metodoa.)

Familia bereko hizkuntzak genetikoki lotuak daude. Honek esan nahi duena hurrengoa da: Hizkuntza horiek hizkuntza jakin batetik deribatuak izan direla; porto-hizkuntza batetik, alegia. Metodo konparatuaren helburua aitzin hizkuntzaren ahalik eta informazio gehien eskuratzea da. Berreraiketa normalean fonologiarekin hasi, hiztegiarekin jarraitu eta gramatikarekin bukatzen da.

Hitz batzuek, direkzionalitate/norabide jakin bat daramate, baina normalean, norabide bakarra daramate. Berreraiketan, fonemak ahalik eta hurbilen egon behar du proto-hizkuntzako fonematik, posible den neurrian. Hizkuntz ekonomia garrantzitsua da prozesu honetan; hau da, alternatiba asko daudenean, aldaketa independente gutxien eskatzen dutenak izango diran ondo egoteko posibilitate gehien dituztenak.

Honako hauek dira metodo konparatuak kontuan hartutako aurre jakintzak:

- Proto-hizkuntza uniforme da; bariazio dialektalik ez.
- hizkuntza aldaketak ondoren datoz.
- Proto-hizkuntzaren aldaketa ostean, ez dago elkareraginik hortik eratorritako hizkuntzen eta honen artean.
- Aldaketa fonologikoak erregularak dira.

Proto-hizkuntzen egiantzekotasuna linguistika konparatiboak eginiko lanak mugatzen du; hau da, linguistika konparatiboak zenbat dakien konparatutako hizkuntzen historian gertaturikoari buruz.

ALDAKETA SEMANTIKO ETA LEXIKOAK

Kapitulu honetan hizkuntzalariek esanahia eta hiztegiaren aldaketari buruz zer pentsatzen duten esango da. Hizkuntzalariek sailkapen tradizionala + berriagoa egin izan dute, eta horiek dira hemen aztergai.

1. Sailkapen tradizionala

- a) “Widening”: Hitzaren esanahia hedatu eta testuinguru gehiagotan erabili ahal izatea da; esanahi konkretuetatik abstraktuagoetara.
- b) “Narrowing”: esanahia murriztu egiten da eta hitza testuinguru konkretu batzuetan soilik erabiltzera igarotzen da; esanahi abstraktuetatik konkretuetara. Adb: Lehen, *meat* = *food*
- c) Metonimia: esanahi bat baino gehiago eukitzea.
- d) Sinekdotea: esanahi osoagoa duen kontzeptu bat eanahi zehatzagoa duen beste kontzeptu bat adierazteko erabiltzen denean edo alderantziz. Adb: *boda* < *vota* (*promesa*)
- e) Degenerazioa: hitz baten esanahia negatiboa bihurtzen da hizkuntza horretako hiztunen artean. Adb: *silly* (*stupid*) < *sely* (*alaia, inozentea*)

- f) Elebazioa: hitz baten esanahia positiboagoa bihurtzen da.
- g) Hiperbolea: esajerazioa.
- h) Semantika aldaketak kontaktuen eraginez: nahiz eta sailkapen tradizionalan ez ageri, hizkuntza jakin baten historian agertu ohi dira hizkuntza ukipena dagoenean.

2. Aldaketa lexikoak: hitz berriak

- a) Ezerezatik sortutakoak, erro sorkuntza: gutxi dira. Gehienak jergetatik hartutako terminoak.
- b) Pertsona izenetatik
- c) Leku izenetatik
- d) Akronimoak: hitz hasierako hizkiak / silabak hartuz sortutako hitzak. Adb: *CD < compact disc / ASAP < as soon as possible*

3. Hitz berrien sorkuntzarako beste erraminta produktibo batzuk:

- a) “Amalgamation”
- b) “Clipping”: hitzak laburrago egitea. Adb: *add < advertisement*
- c) Krezio espresiboak: onomatopeiak (naturako soinuak), interjezioak (ah, oh, wow...)
- d) Obsolezentzia eta hiztegi galera: lesiko berria sortzen dutenek ez ditute soilik hitzak sortzen, hitzak arkaiko bihurtzen eta desagertzen direlaz ere arduratzen dira.

ALDAKETA SINTAKTIKOA (+zenbait euskal adibide)

Aldaketa sintaktikoari dagokionez, gaur egun oraindik ez dago ikertzaile guztiek onartzeko moduko hurbilketarik. Hemez ezin da berreraiketa fonetikorik egin, sintaxiak gramatika-ereduek bakarrik baitu zerikusia eta hau ezin da deskribatu fonologiaren bitartez. Sintaxi aldaketa gehiago da ereduak ordezkatzeari, nahiz eta berreraiketa ere egiten den. Aurrearapen handienak hizkuntza tipologian oinarrituz lotu dira.

Aldaketa sintaktikorako 3 mekanismo nagusi bereizten ditu Campbellek, (eta hauetaz gain gramatikalizazioa ere aipatu behar da.)

1. Berranalisia: sintaxi ikuspegitik definitu zuen egitura sintaktikoaren azpiegitura aldatzen du, baina ez du azaleko egitura aldatzen. Hau da morfologikoki markak eta hitz-ordena aldatu gabe berranalisia egiteko ezinbestekoa delako egitura bat era batera baino gehiagotara analizatzeko aukera egotea. Adb: *Ni nekatzen naiz (sub./ A nagusi. Osagarri/ A nagusi) > ni nekatzen naiz (sub/ a. nagus./ a. lagun)* berranaliaren ondorioz iherarkia eta kategoria aldaketa eman da.
2. Hedadura: azaleko perpausetan gertatzen den aldaketa da, baina ez sakoneko egiuran. Askotan, lehen urratsa berranalisia da, eta gero berranalisi haren hedadura gertatzen da analisi berriak sortzen dituen lehen ezinezkoak zirenak. Adb: *Paris/en>Paris/e* leku-kasuetan -e- beti erabiltzen da (atze, aurre...) eta izenekin berranalisia egin ondoren -e-ren funtzioa hedaduraren bitartez aldatu da.

3. Mailegu sintaktikoa: hizkuntza batean beste hizkuntza batetik datozen egiturak erabiltzean datza. Garrantzitsua da onartzea mailegatze sintaktirkoaren beraren papera aldaketa sintaktikoan. Adb: Gaztelerazko *segun* eta *contra* euskarak mailegu hartu eta gainontzeko postposizioak bezala erabiltzen ditu, baina jatorrizko hizkuntzan ez du funtzio hori. Egokitzapen bat izaten du maileguak.
4. Gramatikalizazioa: Melletek sortutako kontzeptua da, hitza gramatika-marka bihurtzen deneko prozesuari izena emateko kurylowicz-en definizio ezaguna: “Gramatikalizazioa hontean datza, morfema baten hedadura handitzean, estatus lexiko batetik gramatikal batera edo gramatikal batetik gramatikalago batera igarota”. Prozesu tipikoa hau da: hitz lexikoa > grama. hitza > klitikoa > erantsitako hitza > gainerakoekin nahasitakoa. Prozesu honetan sarritan hitzaren esanahia edo forma fonetikoa ahuldu egiten dira. Adb: “egin” aditza, mendebaldean aditz laguntzailea dena. Bestalde, gramatikalizazio fenomeno nahikoa arrunta da, desgramatikalizazioa ez da hain arrunta.